

BARNE-ARAUBIDEKO ERREGELAMENDUA **REGLAMENTO DE RÉGIMEN INTERNO**

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua: Erregelamenduaren xedea.

Barne-araubideko erregelamendu hau KABIA foru organismo autonomoak kudeatzen dituen egoitzei aplikatuko zaie, eta bere xedea erabiltzaileen premiak asetzen direla eta haien eskubideak babesten direla bermatzea, erabiltzaileen bizi-kalitatea sustatzea eta funtzionamendua eta, orobat, elkarbizitza arautuko duten oinarritzko arauak ezartzea da.

2. artikulua: Egoitza-zentroaren helburuak.

1.- Erabiltzaileei zainketa eta eguneroko jarduerak egiteko behar duten arreta pertsonala bermatzea; horretarako, zentroa autonomia pertsonala mantentzen saiatuko da arreta pertsonalizatuan oinarrituta.

2.- Erabiltzaileek ingurune komunitarioarekin harremanak izatera eta bertan parte hartzera bideratutako jarduerak garatzea, beharrezko laguntzarekin.

3.- Erabiltzaileek familiarekiko, gainerako erabiltzaileekiko edo egoitza-ingurunetik kanpoko jendearekiko harremanei eustea eta harreman horiek zabaltzea, eta, ahal dela, zentroaren bizimoduan parte hartzea.

4.- Erabiltzaileen segurtasun-sentimendua sustatzea.

3. artikulua: Edukiera: baimendutako plaza kopurua.

KABIAko zentro bakoitzeko baimendutako plaza kopurua erabiltzaileak zentroan sartu aurretik

TÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1: Objeto del reglamento.

El presente reglamento de régimen interno es de aplicación a las residencias gestionadas por el organismo autónomo foral KABIA y tiene por objeto garantizar la satisfacción de las necesidades y la salvaguarda de los derechos de las personas usuarias, la promoción de su calidad de vida, así como establecer las normas básicas que regulen el funcionamiento y la convivencia.

Artículo 2: Objetivos del centro residencial.

1.- Garantizar a las personas usuarias los cuidados y la asistencia personal necesaria para realizar las actividades de la vida diaria, tratando de mantener su autonomía personal basándose en una atención personalizada.

2.- Desarrollar actividades orientadas a que las personas usuarias se relacionen y participen en el entorno comunitario con el apoyo necesario.

3.- Mantener y ampliar las relaciones de las personas usuarias con su familia, con el resto de personas usuarias o con personas ajenas al entorno residencial y, en la medida de lo posible, participar en la vida del centro.

4.- Favorecer el sentimiento de seguridad de las personas usuarias.

Artículo 3: Capacidad: número de plazas autorizadas.

El número de plazas autorizadas de cada centro de KABIA se señalará en el contrato de ingreso

sinatu beharko duen sarrera-kontratuan adieraziko da.

que deberá suscribir la persona usuaria antes de su ingreso efectivo en el centro.

II. TITULUA

KABIAREN ETA PERTSONA ERABILTZAILAEN ARTEKO HARREMANARI BURUZKO LEGEZKO ARAUBIDEA

4. artikulua: Sartzeko eskakizunak.

Sartzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiko Zuzendaritza eskudunak egoitza-zerbitzua emateko ebazpena eman beharko du, bai eta zerbitzuan sartzeko ebazpena ere, dagokion espedientea izapidetu ondoren, Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasun egoeran dauden pertsonak egoitza zerbitzuetan eta eguneko zentroetan sartzeko araubidea arautzen duen martxoaren 24ko 7/2015 Foru Dekretua edo, hala badagokio, hura aldatzen edo ordeztzen duen araudia aplikatuz.

5. artikulua: Zerbitzuaren katalogoa.

KABIako zentroen zerbitzu zorroa ondorengo arauetan, edota ordezkutzen edo aldatzen dituzten beste edozein arautan, xedatutakoa da:

- 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa.
- 126/2019 Dekretua, uztailaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoentzako egoitza-zentroei buruzkoa, bere 29. artikuluan.
- 38/2007 Foru Dekretua, maiatzaren 22koa, adineko pertsona ezinduentzako egoitza zerbitzuak hitzartzeko bete beharreko baldintzak zehazten dituena.
- 8/2021 Foru Dekretua, ekainaren 29koa, zeinaren bidez aldatu egiten baita

TÍTULO II

RÉGIMEN LEGAL DE LA RELACIÓN ENTRE KABIA Y LAS PERSONAS USUARIAS

Artículo 4: Requisitos para el acceso.

Para el acceso, deberá recaer resolución de la Dirección competente de la Diputación Foral de Gipuzkoa por la que se conceda el servicio residencial, así como la resolución de ingreso, tras la tramitación del correspondiente expediente, en aplicación del Decreto Foral 7/2015, de 24 de marzo, por el que se regula el régimen de acceso a los servicios residenciales y de centro de día para personas en situación de dependencia en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, o de la normativa que, en su caso, lo modifique o sustituya.

Artículo 5: Catálogo del servicio.

La cartera de servicios de los centros de KABIA es la establecida en las siguientes normas o cualesquiera otras que las sustituyan o modifiquen:

- Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales.
- Decreto 126/2019, de 30 de julio, de centros residenciales para personas mayores en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en su artículo 29.
- Decreto Foral 38/2007, de 22 de mayo, por el que se determinan las condiciones necesarias para la concertación de servicios residenciales para personas mayores dependientes.
- Decreto Foral 8/2021, de 29 de junio, por el que se modifica el Decreto Foral

maiatzaren 22ko 38/2007 Foru Dekretua, adineko pertsona ezinduentzako egoitza zerbitzuak hitzartzeko bete beharreko baldintzak zehazten dituena.

- Dagokionean, ekainaren 2ko 394/2006 Foru Agindua, unitate psikogeriatrikoetako baldintzak ezartzen dituena.

Zerbitzu-zorroan sartutako prestazio zehatzen zerrenda I. Eranskinean adierazten da.

6. artikulua: Pertsona erabiltzailearen ekarpen ekonomikoa eta ekarpen ekonomikotik kanpoko zerbitzuen prezioak.

Erabiltzaileak okupatutako plazagatik egin beharreko ekarpenaren zenbatekoa Gipuzkoako Foru Aldundiko Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentuak ekainaren 2ko 15/2015 Foru Dekretuaren, Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasuna dutenentzako arreta zentroen erabiltzaileen ekarpen ekonomikoaren araubidea arautzen duenaren arabera finkatuko du, edo Dekretu hori ordezkatu edo aldatzen duen beste edozein arauben arabera.

Egoitzaz kanpoko egonaldietan, diru ekarpen hori aipatu den 15/2015 Foru Dekretuaren 6. artikuluan eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasuna duten pertsonentzako egoitza-zerbitzuetara eta eguneko zentroetara sartzeko araubidea arautzen duen martxoaren 24ko 7/2015 Foru Dekretuaren 32. artikuluan ezarritakoari lotuta egongo da, hau da:

1. Izaera iraunkorreko erabiltzaileak salbuetsita egongo dira ezarritako ekarpenaren % 25 ordaintzetik ondoren deskribatzen diren absentsia aldietan:

a) Borondatezko absentsiagatik erreserba.

Absentsia zentroari aditzera eman bazaio gutxienez zazpi egun natural lehenago, lekuaren erreserba pertsona zentroan ez dagoen lehen egunetik beretik aplikatuko da.

38/2007, de 22 de mayo, por el que se determinan las condiciones necesarias para la concertación de servicios residenciales para personas mayores dependientes.

- Donde corresponda, Orden Foral 394/2006 de 2 de junio de 2006 por la que se determinan las condiciones de las Unidades de Psicogeriatría.

La relación de las prestaciones concretas incluidas en la cartera de servicios se señala en el Anexo I.

Artículo 6: Aportación económica de la persona usuaria y precios de los servicios no incluidos en la aportación económica.

La cuantía que debe aportar la persona usuaria por la plaza ocupada será determinada por el Departamento de Cuidados y Políticas Sociales de la Diputación Foral de Gipuzkoa, de conformidad con el Decreto Foral 15/2015, 2 de junio de 2015, por el que se regula el régimen de la aportación económica de las personas usuarias de los centros de atención a la dependencia en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, o cualquier otra norma que lo sustituya o modifique.

En los periodos de ausencia de la residencia, la aportación económica estará sujeta a lo dispuesto en el artículo 6 del citado Decreto Foral 15/2015 y en el artículo 32 del Decreto Foral 7/2015, de 24 de marzo, por el que se regula el régimen de acceso a los servicios residenciales y de centro de día para personas en situación de dependencia en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, esto es:

1. Las personas usuarias de los servicios de carácter permanente quedarán exentas de abonar el 25% de la aportación asignada durante los períodos de ausencia que se describen a continuación:

a) Reserva por ausencia voluntaria.

Sí esta ha sido comunicada al centro con una antelación mínima de siete días naturales, la reserva de plaza se aplicará desde el primer día de ausencia en el centro.

Aurretiko abisurik gabe gertatzen denean, zazpigarren egunetik aurrera aplikatuko da.

Erreserba gutxienez zazpi egun naturalerako izango da, eta gehienezko epea urte natural bakoitzeko 45 egunekoa izango da.

b) Ospitaleratze, osasun arazo edo antzeko beste arrazoiren batengatiko erreserba.

Egoera hori zentroari aditzera eman bazaio gutxienez zazpi egun natural lehenago, lekuaren erreserba pertsona zentroan ez dagoen lehen egunetik beretik aplikatuko da.

Ustekabekoa edo larrialdi baten eraginez gertatua bada, zazpigarren egunetik aurrera aplikatuko da.

Azken kasu honetan, lekua erreserbatzeko eskubidea gutxienez zazpi egun naturalerako izango da, eta gehienez laurogeita hamar egun naturalerako, eta epe hau luzatu ahal izango da, hori justifikatzen duen aurretiazko txosten batez.

2. Aldi baterako egoitza zerbitzuen erabiltzaileek esleitu zaien ekarpenaren %100 ordainduko dute kanpoan diren bitartean, plaza erreserbatuta geratzen bada erabiltzaileak uko egin ez diolako.

Erabiltzaile bakoitzak ordaindu beharreko ekarpen ekonomikoa eta ekarpen horretan sartzen ez diren zerbitzuei, I. Eranskinean adierazten direnei, dagozkien prezioak erabiltzaileak zentroan sartu aurretik sinatu beharko duen sarrera-kontratuari erantsiko zaizkio. Eguneratutako prezioak egoitzako informazio taulan ikusgai egongo dira.

7. artikulua: Ordainketa

Erabiltzaileak bere izenean, edo haren ordezkari diharduenak, hitz emango du ekarpena eta ekarpen horretan sartzen ez diren zerbitzuak ordainduko dituela.

Ekarpenaren ordainketa hilero egingo da,

Cuando se produzca sin aviso, previo se aplicará a partir del séptimo día.

La reserva será de aplicación para un periodo mínimo de siete días naturales y un periodo máximo de 45 días por año natural.

b) Reserva por hospitalización, problemas de salud o por otro motivo de índole similar.

Si esta ha sido comunicada al centro con una antelación mínima de siete días naturales, la reserva de plaza se aplicará desde el primer día de ausencia.

Si se produce de forma fortuita o de urgencia, se aplicará a partir del séptimo día.

En este supuesto el derecho de reserva de plaza será por un periodo mínimo de siete días naturales y un máximo de noventa días naturales, que podrán ser prorrogados previo informe justificativo.

2. Las personas usuarias del servicio de estancias temporales abonarán el 100% de la aportación asignada durante los períodos de ausencia en los que la plaza queda reservada por no haber renunciado a la misma.

La aportación económica que deba satisfacer cada persona usuaria, así como los precios correspondientes a los servicios no incluidos en dicha aportación, los cuales se indican en el Anexo I, se adjuntarán al contrato de ingreso que deberá suscribir la persona usuaria antes de su ingreso efectivo en el centro. Los precios actualizados estarán expuestos en el tablón informativo del centro.

Artículo 7: Pago.

La persona usuaria en su propio nombre, o quien ostente su representación, se compromete a abonar la aportación, así como los precios correspondientes a los servicios no incluidos en dicha aportación.

La aportación será abonada de manera mensual,

bankuko helbideratze bidez, hilabetea mediante domiciliación bancaria, a mes vencido. amaitutakoan.

Ekarpenetik kanpoko zerbitzuak kasuan kasu Los servicios no incluidos en la aportación se ezarritako eran ordainduko dira. abonarán en la forma que se establezca en cada caso.

8. artikulua: KABIAREN eta erabiltzailearen Articulo 8: Extinción del contrato entre KABIA arteko kontratua azkentzea. y la persona usuaria.

Zentroko erabiltzaile izaera galdu egingo da La condición de persona usuaria del centro se arrazoi hauetakoren bat tartean badago: pierde por alguna de las siguientes causas:

- Borondatezko baja.
- Ezarritako kuota ekonomikoa ez ordaintzea, Gizarte Politikako Foru Diputatuaren otsailaren 28ko 210/2014 Foru Aginduaren bidez onartutako “Egoitzetako eta eguneko zentroetako erabiltzaileen ez ordaintzearen edo ordainketa atzerapenen protokoloan” ezarritako urratsak jarraitu ondoren eta protokolo horrek edo berau aldatzen edo ordezten duenak ezarritako kasuetan.
- Zaintza espezializatu iraunkorraren premia berria agertzea, betiere zentroak ezin badio eman eta eskatutako zaintza ematen duen zerbitzu batera joan badaiteke.
- Onartua izateko espedientearen barruan, gezurrezko datuak ematea, baldin eta horiek gabe sarrera baimendu izan ez balitzaio.
- Beste zentro batera lekualdatzea.
- Erabiltzailearen heriotza.
- Baja voluntaria.
- No haber satisfecho la cuota económica fijada, una vez que se hayan seguido los trámites basados en el “Protocolo de impagos o demoras en los pagos de las personas usuarias de servicios en centros residenciales y centros de atención diurna”, aprobado por la Orden Foral 210/2014, de 28 de febrero, del Diputado Foral del Departamento de Políticas Sociales, y en los supuestos previstos en dicho protocolo o en el protocolo que lo modifique o sustituya.
- La aparición de una necesidad sobrevenida de una atención especializada persistente, siempre que el centro no pueda dispensarla y pueda acceder a un servicio que cubra la atención requerida.
- La aportación, dentro del expediente de admisión, de datos falsos sin cuya concurrencia no se hubiera autorizado el ingreso.
- Traslado a otro centro.
- El fallecimiento de la persona usuaria.

III. TITULUA

ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

TÍTULO III

DERECHOS Y DEBERES

9. artikulua: Erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak.

Konstituzioak eta legeek aitortzen eta ezartzen dituzten eskubide eta betebeharez gain, gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 9. eta 10. artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna eta iradokizunen eta kexen araubidea onartzen dituen apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuaren II. Kapituluaren, 1. eta 2. Ataletan, jasotzen dira.

Erabiltzaileen eskubide eta betebeharren zerrenda erregelamendu honen 13. artikuluan eta II. Eranskinean jasotzen da.

10. artikulua: Erabiltzaileen senideen eta ordezkarien eskubide eta betebeharrak.

Erabiltzaileen senideek edo ordezkariak eskubidea dute zentroetan informazioa, orientazioa eta laguntza jasotzeko, eta, hala nahi izanez gero, senitartekoaren artatzean lankidetzan eta arreta-planean parte hartzea erraztuko zaie, baldin eta erabiltzailearen segurtasuna bermatuta badago.

Erabiltzaileari buruzko komunikazioa, lehenetsunez, sarrera-kontratuan izendatutako erreferentziarako pertsonaren bidez egingo da.

Egoitza-zentroan daudenean, erregelamendu honetan jasotako zentroko antolamendu- eta funtzionamendu-arauak bete beharko dituzte, bai eta dokumentu honekin batera ematen diren zentroaren arau espezifikoak ere.

11. artikulua: Gizarte zerbitzuetako profesionalen eskubide eta betebeharrak.

Konstituzioak eta legeek aitortzen eta ezartzen

Artículo 9: Derechos y deberes de las personas usuarias.

Además de los constitucional y legalmente reconocidos y establecidos, los derechos y deberes de las personas usuarias de los servicios sociales se encuentran recogidos en los artículos 9 y 10 de la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales y en el Capítulo II, Secciones 1 y 2 del Decreto 64/2004, de 6 de abril, por el que se aprueba la carta de derechos y obligaciones de las personas usuarias y profesionales de los servicios sociales en la Comunidad Autónoma del País Vasco y régimen de sugerencias y quejas.

La relación de derechos y deberes de las personas usuarias se recoge en el artículo 13 y en el Anexo II del presente reglamento.

Artículo 10: Derechos y deberes de las/os familiares y representantes de las personas usuarias.

Las personas familiares o representantes de las personas usuarias tienen derecho a recibir información, orientación y apoyo en los centros, facilitando su colaboración, si así lo desean, en los cuidados de su familiar, así como la participación en el plan de atención, siempre que la seguridad de la persona usuaria esté garantizada.

La comunicación relativa a la persona usuaria se realizará prioritariamente a través de la persona de referencia designada en el contrato de ingreso.

Cuando se encuentren en el centro residencial, deberán cumplir las normas de organización y funcionamiento del centro recogidas en este reglamento así como las específicas del centro que se entregan junto con este documento.

Artículo 11: Derechos y deberes de las personas profesionales de los servicios sociales.

Además de los constitucional y legalmente

dituzten eskubide eta betebeharez gain, gizarte zerbitzuetako profesionalen eskubide eta betebeharrak Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 11. eta 12. artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna eta iradokizunen eta kexen araubidea onartzen dituen apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuaren III. Kapituluaren 1. eta 2. Ataletan, jasotzen dira.

Profesionalen eskubide eta betebeharren zerrenda erregelamendu honen 13. artikuluan eta III. Eranskinean jasotzen da.

12. artikulua: Bisitarien eta boluntarioen eskubide eta betebeharrak.

Egoitza-zentroan erabiltzaileen bisitari eta boluntario gisa dauden pertsonak jardura edo bisita egiteko beharrezko informazio, orientazio eta laguntza jasotzeko eskubidea dute.

Egoitza-zentroan daudenean, erregelamendu honetan jasotako zentroko antolamendu- eta funtzionamendu-arauak bete beharko dituzte, bai eta dokumentu honekin batera ematen diren zentroaren arau espezifikoak ere.

IV. TITULUA

BARNE-FUNTZIONAMENDUKO ARAUAK

13. artikulua: Arau orokorrak.

Izaera orokorrek, egoitza-zentroan aurkitzen den pertsona orok arau hauek bete beharko ditu:

- Barne-funtzionamendu arauak arretaz irakurtzea, ezagutu eta bete daitezten.
- Beste pertsona batzuekin batera bizitzeko higiene pertsonaleko oinarriko arauak betetzea.

reconocidos y establecidos, los derechos y deberes de las personas profesionales de los servicios sociales se encuentran recogidos en los artículos 11 y 12 de la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales y en el Capítulo III, Secciones 1 y 2 del Decreto 64/2004, de 6 de abril, por el que se aprueba la carta de derechos y obligaciones de las personas usuarias y profesionales de los servicios sociales en la Comunidad Autónoma del País Vasco y régimen de sugerencias y quejas.

La relación de derechos y deberes de las personas profesionales se recoge en el artículo 13 y en el Anexo III del presente reglamento.

Artículo 12: Derechos y deberes de las personas visitantes y voluntarias.

Las personas que se encuentren en el centro residencial en calidad de visitantes de las personas usuarias y las personas voluntarias tienen derecho a recibir información, orientación y apoyo necesarios para el desarrollo de la actividad o efectuar la visita.

Cuando se encuentren en el centro residencial, deberán cumplir las normas de organización y funcionamiento del centro recogidas en este reglamento así como las específicas del centro que se entregan junto con este documento.

TÍTULO IV

NORMAS DE FUNCIONAMIENTO INTERNO

Artículo 13: Normas de carácter general.

Con carácter general, toda persona que se encuentre en el centro residencial deberá cumplir las siguientes normas:

- Leer con detenimiento las normas de funcionamiento interno, para su conocimiento y cumplimiento.
- Guardar las normas de higiene personal básicas de la convivencia con otras personas.

- Egoitzako instalazioen eta ondasun higigarrien erabilera egokia errespetatzea eta horrela mantentze-lanetan laguntzea.
- Egoitzako zerbitzuetan edo instalazioetan hautemandako anomaliak edo irregulartasunak ezagutaraztea.
- Egoitzan dauden pertsona guztiak portaera egokia izatea, horien eskubideak errespetatzea eta diskriminaziorik gabeko jokamoldez aritzea.
- Segurtasun- eta higiene-arauak errespetatzea.
- Galdutako objektuen bat aurkitzen den kasuetan, harreran entregatzea.
- Debekatuta dago egoitza-zentroaren perimetroaren barruko edozein esparru edo aretotan erretzea, horretarako egokitutako lekuetan izan ezik. Nolanahi ere, gaiari buruz indarrean dagoen araudian xedatutakoa beteko da.
- Debekatuta dago erabiltzaileengandik, senideengandik edo hurbilekoengandik eskupekoak jasotzea.
- Debekatuta dago ibilgailuak eraikin barrura sartzea.
- Respetar el buen uso de las instalaciones y los bienes muebles de la residencia y colaborar con ello en su mantenimiento.
- Dar a conocer las anomalías o irregularidades que se observen en los servicios o en las instalaciones de la residencia.
- Mantener un comportamiento correcto en su relación con todas las personas que se encuentren en el centro, respetar sus derechos y mantener un comportamiento no discriminatorio.
- Respetar las normas de seguridad e higiene.
- Entregar en recepción los objetos extraviados que se pudieran encontrar.
- Está prohibido fumar en cualquier recinto o dependencia situado dentro del perímetro del centro residencial, salvo en los lugares habilitados al efecto. En todo caso, se estará a lo dispuesto en la normativa en vigor sobre la materia.
- Está prohibido recibir propinas por parte de las personas usuarias, familiares o allegados/as.
- Está prohibido el acceso de vehículos al interior del edificio.

14. artikulua: Otorduei eta jantokiari buruzko arauak.

Jantoki-zerbitzuak barne hartzen ditu gosaria, bazkaria, askaria, afaria eta, hala badagokio, afari ostekoa, zentroko osasun-zerbitzuek agindutako dieta moten arabera. Otorduak informazio-tauletan eskuragarri egongo diren zentroak ezarritako ordutegietan emango dira.

Erabiltzaileek jantokian ezin dute sartu edo atera ez elikagairik ez tresnarik, hala nola mahai-tresnak, edalontziak edo ezpainzapiak.

Esleitutako jantokiko lekua alda daiteke

Artículo 14: Normas sobre comidas y comedor.

El servicio de comedor incluye los servicios de desayuno, comida, merienda, cena y, en su caso, recena, de acuerdo con los tipos de dieta pautados por los servicios sanitarios del centro. Las comidas serán servidas en los horarios fijados por el centro, los cuales estarán disponibles en los tableros informativos.

Las personas usuarias no podrán introducir o sacar del comedor ni alimentos ni utensilios, tales como cubiertos, vasos, o servilletas.

El lugar asignado en el comedor puede ser objeto

zerbitzuaren premiengatik, betiere behar bezala justifikatua bada eta erabiltzaileei horren berri ematen bazaie.

Osasun-zerbitzuek aginduta, gelan zerbitzatu ahal izango dira otorduak.

Gainerako kasuetan, logelan eginiko elikagaien kontsumoa erabiltzailearen, senideen edo ordezkarien erantzukizun eskusiboaren pean burutuko da.

Erabiltzaile bakoitzak, urtebetetze-egunean, 3 pertsona gonbidatu ahal izango ditu zentroan bazkaltzera. Zentroak bere gain hartuko du zerbitzu hori.

15. artikulua: Logelei buruzko arauak.

Gelak egunero garbitzen dira, eta sarriago egoerak hala eskatzen badu.

Gela errazago garbitzeko eta eragozpenak saihesteko, ahal bada, erabiltzaileek libre utziko dituzte eguneroko garbiketa egiten den bitartean.

Logela erabiltzailearen espazio pribatua da egoitzan, eta hala errespetatuko du egoitzazentroan dagoen pertsona orok; horregatik, ez da logelan sartu behar erabiltzailearen baimenik gabe.

Bisitariek egoitzako komun orokorrak erabiliko dituzte.

Erabiltzaileak objektu pertsonalak eta dekoraziokoak izan ditzake gelan, betiere ohiko segurtasun- eta higiene-arauekin bateragarriak badira.

Erabiltzaile bakoitzak bere logelako bizigarritasun- eta higiene-arauak betetzen direla bermatu behar du, bai eta lanparak, altzariak, instalazio elektrikoak, sanitarioak eta komunikaziokoak zaintzen direla ere eta behar ez bezala erabiliz gero, haiei egindako kalteen erantzule izango da.

Erabiltzaileek nahi bezala eta beren kargura

de variación por necesidades del servicio debidamente justificadas y puestas en conocimiento de las personas usuarias.

Por prescripción de los servicios sanitarios se podrán servir las comidas en la habitación.

El consumo de alimentos en la habitación en el resto de los casos se realizará bajo la exclusiva responsabilidad de la persona usuaria, familiares o representantes.

Cada persona usuaria, el día de su cumpleaños, podrá invitar a comer en el centro a 3 personas. Este servicio será asumido por el centro.

Artículo 15: Normas sobre habitaciones.

Las habitaciones se limpian diariamente, y con mayor frecuencia si las circunstancias lo requieren.

A fin de facilitar la limpieza de la habitación y evitar molestias, si fuera posible, las personas usuarias las dejarán libres mientras se realiza la limpieza diaria.

La habitación es el espacio privado en la residencia de la persona usuaria y será respetado como tal por toda persona que se encuentre en el centro residencial, entendiéndose por ello que no se debe entrar en la habitación sin permiso de la persona usuaria.

Las visitas utilizarán los baños generales de la residencia.

La persona usuaria puede disponer de objetos personales y de decoración en la habitación, siempre que sean compatibles con las normas habituales de seguridad e higiene.

Cada persona usuaria debe garantizar el cumplimiento de las normas de habitabilidad e higiene dentro de su habitación y el cuidado en la utilización de lámparas, muebles, instalaciones eléctricas, sanitarias y de comunicación, y responderá de los desperfectos que se deban al uso incorrecto de los mismos.

Las personas usuarias podrán instalar de forma

instala ditzakete beharrezkotzat jotzen dituzten gailu pertsonalak (TB, irratia, musika, etab.), betiere zentroaren adostasuna jasotakoan, baldin eta arriskurik ez badakarte eta gainerako pertsonen enbarazu egiten ez badiete. Dakarten arriskuagatik, ezin izango dira erabili manta elektrikoak, berogailu eramangarriak eta antzerako gailuak. Nolanahi ere, aparatuen bolumenak atsedean egokia hartzeko aukera eman behar die gainerako erabiltzaileei.

Orokorrean gelan ezin da elikagairik, edaririk edo sendagairik eduki.

Zentroko langileek, erabiltzailearekin batera edo bere baimenarekin, logela berrikusi ahal izango dute, atal honetan jasotako arauak betetzen direla egiaztatzeko.

Esleitutako logela aldatu egin daiteke erabiltzailearen edo zerbitzuaren beharengatik, behar bezala justifikatuta eta erabiltzaileei, senideei edo ordezkarietara jakinarazita.

16. artikulua: Arropari buruzko arauak.

Erabiltzaileari dagokio erabilera pertsonaleko arropa eta oinetakoak jartzea eta ordezkatzeko. Ahal dela, garbigailu eta lehorgailu industrialerako egokiak izango dira.

Arroparen garbiketa, lisatzea eta oinarrizko mantentzea zentroak berak egingo du. Garbiketa-prozedurak egokitu egingo dira haien higieena eta ahalik eta kontserbazio-egoera onena bermatzeko.

Ezingo da arropa garbitu eta zintzilikatu logeletan.

Egoitzak ez du hartzen arropa delikatuak garbitzearen ardura eta ez da arropa hondatzearen erantzule izango, ehunen higadura edo alterazioa medio.

Arropa guztiak zentroak markatzeko eman behar dira. Zentroak ez du bere gain hartuko identifikatzeko behar bezala entregatu ez diren jantziak galtzearen erantzukizuna.

voluntaria y a su cargo aquellos aparatos de carácter personal (TV, radio, música, etc.) que consideren necesarios, previa conformidad del centro, siempre y cuando no supongan un riesgo y no molesten a las demás personas. Por el riesgo que entrañan, no se podrán utilizar mantas eléctricas, calentadores portátiles y dispositivos similares. En todo caso, el volumen de los aparatos debe permitir un adecuado descanso a las demás personas usuarias.

Por norma general, no se puede tener alimentos, bebidas ni medicamentos en la habitación.

El personal del centro podrá revisar, junto con la persona usuaria o con su permiso, la habitación, con el fin de verificar el cumplimiento de las normas recogidas en este apartado.

La habitación asignada puede ser objeto de variación por necesidades de la persona usuaria o del servicio debidamente justificadas y puestas en conocimiento de las personas usuarias, familiares o representantes.

Artículo 16: Normas sobre la ropa.

Corresponde a la persona usuaria aportar la ropa y calzado de uso personal y reponerlos. Se procurará que los mismos sean aptos para lavadora y secadora industrial.

El lavado, planchado y mantenimiento básico de la ropa se efectuará por el propio centro. Los procedimientos de lavado se ajustarán a fin de garantizar su higiene y el mejor estado de conservación posible.

No se podrá limpiar y tender ropa en las habitaciones.

La residencia no se hace cargo de la limpieza de la ropa delicada ni del deterioro de la ropa por desgaste o alteración del tejido.

Toda ropa debe ser entregada para ser marcada por el centro. El centro no se hace responsable del extravío de aquellas prendas que no hayan sido debidamente entregadas para su identificación.

Aldi baterako egonaldietan, arropa etxetik ekarri beharko da markatuta. Kasu hauetan, zentroak ez du bere gain hartuko behar bezala identifikatuta ez dauden jantziak galtzearen erantzukizuna.

17. artikulua: Norberaren zaintzari buruzko arauak.

Erabiltzaileen garbitasuna bermatuko da, eta laguntza emango zaie kasu bakoitzean beharrezkoa den mailan.

Erabilera pertsonaleko higiene-tresnak (orrazia, hortzetako eskuila, bizarra mozteko makina eta antzekoak) erabiltzailearen kontura izango dira eta ahal den neurrian, zentroak jarritako identifikazio-etiketa eramango dute.

Erabilera komuneko higiene-produktuak (xaboiak, koloniak, hortzetako pasta, xanpua, gela, hidratatzeko krema, etab.) egoitzak ematen ditu. Erabiltzaileen kontura izango dira haiek nahiago dituzten marka-produktuak edo produktu mota espezifikoak.

Inkontinentzia-materiala Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak ematen du.

Protesiak, ortesiak, gurpil-aulkiak eta erabilera pertsonaleko laguntza teknikoak eta horiek mantentzea erabiltzailearen kontura izango dira, osasun-sistemak kasu bakoitzean aurreikusten duen estaldurari kalterik egin gabe.

18. artikulua: Osasun-zerbitzuei buruzko arauak.

Zentroko osasun-zerbitzuak beharrezko argibide medikoak eta osasun-argibideak emango dizkio erabiltzaileari, hala nola, medikazioa, osasun-arauak, elikadura-erregimenak, ohea gordetzeko beharra, ospitaleratzea, etab. Erabiltzailearen, senideen eta ordezkarien erantzukizuna izango da osasun-zerbitzuak emandako jarraibideen jarraipena egiten laguntzea zentroko langileei.

Erabiltzaileak, senideek edo ordezkariak osasun-

Durante las estancias temporales, la ropa deberá traerse marcada de casa. En estos casos, el centro no se hace responsable de la pérdida de prendas que no estén debidamente identificadas.

Artículo 17: Normas sobre el cuidado personal.

Se garantizará el aseo personal de las personas usuarias, prestándoles apoyo según el grado que sea necesario en cada caso.

Los útiles de higiene de uso personal (peine, cepillo de dientes, maquinilla de afeitar y otros similares) son a cargo de la persona usuaria y en la medida de lo posible portarán etiqueta de identificación puesta por el centro.

El centro aporta los productos de higiene de uso común (jabones, colonias, pasta dentífrica, pastillas para la higiene de la dentadura champú, gel, crema hidratante, etc.). Son a cargo de las personas usuarias aquellos productos de marca o tipos específicos por ellas preferidos.

El material de incontinencia lo aporta el Departamento de Salud del Gobierno Vasco.

Las prótesis, órtesis, sillas de ruedas y ayudas técnicas de uso personal, así como su mantenimiento, son a cargo de la persona usuaria, sin perjuicio de la cobertura que el sistema de salud prevea en cada caso.

Artículo 18: Normas sobre servicios sanitarios.

El servicio sanitario del centro dará las oportunas indicaciones médicas y de salud a la persona usuaria, tales como medicación, normas sanitarias, regímenes alimenticios, la necesidad de guardar cama, la hospitalización, etc., y será responsabilidad de la persona usuaria, familiares y representantes colaborar con el personal del centro en el seguimiento de las pautas dadas por el servicio sanitario.

En el supuesto de que la persona usuaria,

agindu bat ez betetzea erabakitzen badute, beti ere erabaki horrek beste erabiltzaile batzuen segurtasunari edo osasun-egoerari eragiten ez badio, erabiltzailearen espedienteari erantsiko zaion idazki batean jaso beharko dute.

Zentroak osasun-zerbitzua antolatuko du, eta erabiltzaileak bete beharreko ordutegiak ezarriko ditu (kontsulta medikoa, sendaketak, laginak hartzea, etab.).

Gaixorik dauden erabiltzaileei egiten zaizkien bisitetan, osasun-langileen jarraibideak errespetatuko dira.

19. artikulua: Sendagaiei buruzko arauak.

Erabiltzaileei ematen zaizkien sendagaien kudeaketa zentroak izapidetuko du, modu globalean, Euskal Autonomia Erkidegoko adineko pertsonentzako egoitzetako farmazia-zerbitzuei eta sendagai-biltegiei buruzko otsailaren 26ko 29/2019 Dekretuan edo hori ordezkatzan edo aldatzen duen beste edozein arautan ezarritakoari jarraiki.

Sendagaiak kasuan kasu ezarritako eran ordainduko dira.

20. artikulua: Kontsultetara edo ospitaleetara bideratzeko arauak.

Senideek edo ordezkariak erabiltzailearen ardura hartu beharko dute, baldin eta osasun-egoerak eragindako arazoengatik (mediku-kontsultak eta ospitaleratzeak, esaterako) erabiltzaileak zentrotik kanpo joan edo bizi behar badu.

Erabiltzaileak mediku-kontsultetara joan behar badu, gomendagarria da senide edo ordezkariak lagunduta joatea, erabiltzailearen, haren familiaren edo ordezkariaren eskumen eta erantzukizun diren balizko erabakiak direla eta, hala nola, ebakuntza kirurgikoak, tratamenduak, etab.

familiares o representantes opten por la negativa a seguir una prescripción sanitaria, y siempre que esta decisión no afecte a la seguridad o estado de salud de otras personas usuarias, deberán hacerlo constar en un escrito que quedará unido al expediente de la persona usuaria.

El centro organizará el servicio sanitario, con el establecimiento de los correspondientes horarios (consulta médica, curas, toma de muestras, etc.) que la persona usuaria deberá cumplir.

En las visitas a las personas usuarias que se hallen enfermas se respetarán las pautas del personal sanitario.

Artículo 19: Normas sobre medicamentos.

La gestión de los medicamentos que se administran a las personas usuarias será tramitada por el centro, de manera global, de acuerdo a lo establecido en el Decreto 29/2019, de 26 de febrero, sobre servicios de farmacia y depósitos de medicamentos en las residencias para personas mayores ubicadas en la Comunidad Autónoma de Euskadi o en cualquier otra norma que lo sustituya o modifique.

Los medicamentos se abonarán en la forma que se establezca en cada caso.

Artículo 20: Normas sobre derivación a consultas u hospitales.

Las personas familiares o representantes deberán responsabilizarse de la persona usuaria siempre que esta tenga que desplazarse o residir fuera del centro por problemas derivados de su estado de salud, como consultas médicas y hospitalizaciones.

En caso de que la persona usuaria tenga que acudir a consultas médicas, es recomendable que vaya acompañada por una persona familiar o representante, en razón de las probables decisiones que hubiera que tomar que son competencia y responsabilidad de la persona usuaria, de su familia o de su representante,

Zentroa erabiltzaileari laguntza bilatzeaz arduratuko da, pertsona horrek ez badu seniderik edo haren ardura har dezakeen pertsonarik, eta erabiltzailearen kontura izango dira laguntza horrek eragin ditzakeen gastuak.

21. artikulua: Ordutegiei, bisitei, irteerei eta kanpoarekiko komunikazioari buruzko arauak.

Erabiltzaileen bisitak urteko egun guztietan egin ahal izango dira, ahal dela, goizez eta arratsaldean, betiere zentroan otordu nagusietarako, higienerako, atsedenerako, ekintzetarako eta abarretarako ezarritako ordutegiak errespetatuz. Ordutegien informazioa egoitzako informazio taulan ikusgai egongo da.

Lehentasunezko ordutegitik kanpo egiten diren bisitak zentroari aurrez jakinaraziko zaizkio, ordutegi horretan egitea ezinezkoa dela arrazoituta.

Segurtasun-arrazoiengatik, bisitek harrerako pertsonalari edo, haiek ez daudenean, solairuko zaintzaileei sartu eta irten direla jakinarazi behar diete dagokion erregistroa egiteko.

Erabiltzaileek horretarako prestatutako geletan jasoko dituzte bisitak, bai eta beren logelan ere, beste erabiltzaileei eragozpenik eragiten ez badie.

Otordu nagusiak kanpoan egiten badira edo gaua kanpoan igarotzen bada, behar besteko aurrerapenez jakinarazi beharko zaio zentroari.

Gaixotasunaren edo prozesu terminalaren kasuan, familiak edo erabiltzailearen hurbileko pertsonak nahi duten denbora eman ahal izango dute zentroan. Laguntza hori zentroari jakinarazi beharko zaio. Erabiltzailea gela partekatuan badago, zentroarekin koordinatuko da, erabiltzaileen eta beren familien intimitatea bermatu ahal izateko.

tales como intervenciones quirúrgicas, tratamientos, etc.

El centro se ocupará de buscar acompañamiento para la persona usuaria en los casos en que esta carezca de familiares o personas que puedan responsabilizarse de ella, siendo por cuenta de la persona usuaria los gastos que pudiera ocasionar dicho acompañamiento.

Artículo 21: Normas sobre horarios, visitas, salidas y comunicación con el exterior.

Las visitas a las personas usuarias se pueden realizar todos los días del año, preferentemente en horario de mañana y tarde, y respetando, en todo caso, los horarios establecidos en el centro para las comidas principales, la higiene, el descanso, las actividades, etc. La información sobre los horarios estará expuesta en el tablón informativo del centro.

Las visitas que se realicen fuera del horario preferente se comunicarán previamente al centro, y deberán estar motivadas por la imposibilidad de realizarlas en dicho horario.

Por razones de seguridad, las visitas deben comunicar su entrada y salida al personal de recepción o, en su ausencia, al personal cuidador, para su correspondiente registro.

Las personas usuarias recibirán las visitas en las salas habilitadas al efecto y, asimismo, en su habitación, si no causase molestias a otras personas usuarias.

La ingesta de comidas principales o pernoctas en el exterior se deberán comunicar al centro con la debida antelación.

En caso de enfermedad o proceso terminal, la familia o las personas allegadas a la persona usuaria podrán permanecer en el centro todo el tiempo que deseen. Este acompañamiento deberá ser comunicado al centro. En el caso de que la persona usuaria comparta habitación, se coordinará con el centro para poder garantizar la intimidad de la personas usuarias y sus familias.

22. artikulua: Segurtasunari eta espazio komunak eta zerbitzuak erabiltzeari buruzko arauak.

Erabiltzaileek egoitzako erabilera komuneko espazioak erabil ditzakete, baina ezin dute sartu, beren segurtasuna zaintzeko, zerbitzu-eremuetara, hala nola sukaldera, ikuztegira eta zerbitzuetarako beste bulego batzuetara.

Erabiltzaileek egoitzako instalazioak, objektuak eta aparatuak erabil ditzakete, baldin eta gainerako erabiltzaileen erabilera-eskubidea errespetatzen badute.

Erabiltzaileak erabilera pertsonaleko etxetresna elektriko txikiak (bizarra mozteko makina, ile-lehorgailua, etab.) bere buruari, gainerako erabiltzaileei edo instalazioei eragin diezaieketen arrisku egoerak saihestuz erabiliko ditu.

Igogailua erabiltzean bere gehieneko edukiera hartu behar da kontuan, matxurak eta istripuak saihesteko.

Erabiltzaileentzat beharrezkoak diren babes- eta kontrol-neurriak ezartzen dira, bereziki baldintza fisiko edo psikikoengatik haien osotasunerako arrisku-egoerak aurreikus daitezkeen kasuetan. Beharrezkoa den kasuetan, erabiltzailearen edo haren ordezkariaren baimena eskatuko da.

23. artikulua: Norberaren ondasunak zaintzeari eta zentroaren ondare-erantzukizunari buruzko arauak.

Zentroak gordailuan izan ahalko ditu erabiltzaileen ondasunak, hala eskatuz gero.

Zentroak emandako eta itzulitako ondasunen erregistroa eramango du.

Gainerako kasuetan, erabiltzaileari, familiari edo ordezkariari dagokio bidezko neurriak hartzea, dirua edo objektu baliotsuak

Artículo 22: Normas sobre seguridad y utilización de espacios comunes y servicios.

Las personas usuarias pueden utilizar los espacios de uso común de la residencia, pero no pueden acceder, a fin de preservar su seguridad, a las zonas de servicios como cocina, lavandería y otras dependencias destinadas a servicios.

Las personas usuarias pueden utilizar las instalaciones, objetos y aparatos de la residencia, siempre y cuando observen el debido respeto al derecho de uso de las demás personas usuarias.

La persona usuaria debe utilizar los pequeños electrodomésticos de uso personal (máquina de afeitar, secador de pelo, etc.) evitando situaciones de riesgo que puedan afectar a su persona, a las demás personas usuarias o a las instalaciones.

Al utilizar el ascensor se ha de tener en cuenta la capacidad máxima del mismo, a fin de evitar averías y accidentes.

Se establecen las medidas de protección y control necesarias para las personas usuarias, especialmente en aquellos casos en que, por condicionamientos de índole física o psíquica de las mismas, puedan preverse situaciones de riesgo para su integridad. En aquellos casos en que sea preceptivo, se recabará la correspondiente autorización de la persona usuaria o de su representante.

Artículo 23: Normas sobre custodia de propiedades personales y responsabilidad patrimonial del centro.

El centro podrá mantener en depósito las propiedades personales de las personas usuarias, si así lo solicitan.

El centro llevará un registro de las entregas y retiradas de dichas propiedades.

En el resto de casos, corresponde a la persona usuaria, a la familia o a la persona representante tomar las medidas oportunas para evitar el

desagertzeko edo galtzeko arriskua saihesteko.

Protesiak, ortesiak, audifonoak edo antzeko aparatuak gordetzea eta zaintzea erabiltzaileei dagokie, salbu eta narriadura kognitiboa edo bestelako ezintasunen bat badute. Kasu horretan, zentroko langileek elementu horiek gordetzen eta zaintzen lagunduko dute.

Zentroko langileek detektatzen badute tresna horiek manipulatzegatik galtzeko arriskua dagoela, erreferentziatzko pertsonari jakinaraziko diote, eta informazio hori behar bezala erregistratuko da.

Gerta daitezkeen galerak edo kalteak prebenitzeko, zentroak aparatu horien gaineko arrazoizko kontrola egiteko konpromisoa hartzen du, eta goizetan, jaikitzean, jartzen direla eta gauetan, oheratzen direnean, kentzen direla egiaztatzen eta erregistratuko du.

Edonola ere, KABIAk ez du bere gain hartuko galdutako edo hondatutako objektuen gaineko erantzukizunik, direla erabiltzaileenak, senideenak edo bisitarienak; salbu eta, erreklamazioa aurkeztu ondoren, kalteak sortzean erantzukizuna duela frogatzen bada.

Erreklamazioa egiteko, erabiltzaileak dagokion inprimakia bete eta, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritako bideetako edozein erabiliz aurkeztu beharko du.

